

Durangoko Udalaren

Euskararen Erabilera
Indarberritzeko

AROA Plana

2025 - 2028



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

AURKIBIDEA

Sarrera	2 or.
Helburu nagusiak	3 or.
Diagnostikoa: ahulguneak, indar-guneak eta lehentasunak	4 or.
Plana diseinatzeko prozesua	5 or.
Zehar-lerroak	5 or.
Edukia	6 or.
Gobernantza	7 or.
Jarrera – motibazioak	12 or.
Ezagutza – gaitasuna	21 or.
Erabilera – elkarreragina	23 or.
Berrikuntza	27 or.
Ikerketa – sistematizazioa	28 or.
Komunikazioa – hedapena	28 or.

1. SARRERA

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana edo ESEP deritzoguna, EAEko erakunde publiko guztientzako plan gidari gisa sortu zen 2012an, 10 urteko iraupenarekin. Hala, 2022an plangintzaren ebaluazioa egin eta ESEP berritzeko batzorde-atal berezi bat jarri zen martxan Euskararen Aholku Batzordearen baitan.

Ondoren, 2023an, hausnarketa prozesu sakon bati ekin zitzaion eta prozesu horretatik zirriborro bat sortu zen. Zirriborroa kontrastatu eta ekarpenak bildu ondoren behin betiko dokumentua sortu zen. Hau Eusko Jaurlaritzako Gobernu kontseilura eraman zen 2024ko otsailean eta bertan onartu zen.

Prozesu guzti honen emaitza *Aroa* marko estrategikoa izan da. Marko honek euskararen indarberritzea helburu duten erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetzak sustatu nahi du, eta metodologiaren aldeko apustua egiten du, gidalerro teoriko zein praktikoa eskainiz.

Durangoko Udalari dagokionez, administrazio publiko gisa, Euskara Sustatzeko hainbat Ekintza Plan eraman ditu aurrera urte hauetan zehar. Zehazki lau aipatu daitezke, hurrengo iraunaldia izan dutenak: 2005-2008, 2009-2012, 2013-2017 eta 2019-2022.

Azken horren indarraldia bi urtez luzatu da (2023 eta 2024 urteetara). Azkenean, 2024ko udaberrian Euskara Kontseilua jarri zen martxan, udazkeneraino luzatuz, eta bertan batu ziren Durangoko hainbat eragile, elkarte eta norbanako. Kontseiluan egindako lanketa eta hausnarketak, besteak beste, dokumentu honen oinarria izan dira, Durangoko sare eta errealitate soziala ahalik eta fidelen islatzeko nahian.

Horrez gain, aipatutako *Aroa* marko estrategikoa ere beharrezko zimendua izan da Plana egituratu eta edukiz betetzeko. Edozelan ere, *Aroa* markoa den neurrian, tokian tokiko izaera, behar eta helburuetara (hots, Durangoko testuingurura) egokitua izan da. Markoa zazpi ardatzez osatuta dago, zeinak oinarritzat hartu diren, ondoren ekarpenak gehituz eta gehiago zehaztuz eta osatuz. Honakoak dira ardatz horiek:

- Gobernantza
- Jarrerak – motibazioak
- Ezagutza – gaitasuna
- Erabilera – elkarreragina
- Berrikuntza
- Ikerketa – sistematizazioa
- Komunikazioa – hedapena

Beraz, zazpi ardatz horien bueltan egituratuko da. Era berean, ardatz horien baitan erronkak identifikatuko dira, lortu nahi diren lorpenak, epe ertaineko konpromiso-maila eskatzen dutenak. Erronka horiek lan-ildoka bereiziko dira, hots, gaiaren arabera antolatuko dira. Azkenik, ekintzak zehaztuko dira, hau da, jarduera-proiektuak edo programak definitzeko balio duten eragiketa eta ataza multzoak.

Aldi berean, beste sailkapen mota bat ere egin daiteke, gaiari edo materiari dagokionez. Aurreko ESEpak oinarri hartuta, eta Euskara Kontseiluan egin den lanketa ikusita, honako sei atalak bereizi edo identifikatu daitezke, aurrez aipatutako zazpi ardatzetan txertatuak izango direnak:

- Kirola.
- Etorkinak.
- Kultura.
- Hezkuntza.
- Merkataritza.
- Hedabideak.

Honainokoak argi, hurrengo ataletan zehaztasun gehiago eskainiko dira eta gehiago sakonduko da.

2. HELBURU NAGUSIAK

Esan bezala, euskara bultzatzea eta normalizatzea norbanako, eragile eta erakunde desberdinen eginkizuna da. Zentzu horretan, udal administrazioak eredu izan behar du, eta euskararen aldeko politika integratzaileak garatu eta martxan jarri behar ditu. Hain zuzen ere, hor kokatu behar da AROA Plana. Datozen lau urteetan gidalerro eta zimendu izateko asmoz sortu da, euskarari dagokionean.

Euskara, bere horretan, zehar lerro gisa ulertu behar da. Hots, egunerokotasunean aurrera eramaten diren ekintza eta hartu-eman guztietan dago presente; izan kirolean, hezkuntzan, aisialdian, etxean... eta nola ez, administrazioan. Horregatik, aipatutako Plan Estrategikoa udaleko esparru eta sail guztietan txertatzeko asmoarekin sortu da, eta izaera holistikoa du. Beraz, plan estrategikoan definitutako helburu eta ekintzak gainerako sailekin elkarlanean garatu behar dira, euskara zerbitzuaren laguntza eta aholkularitzarekin.

Dokumentu honetan proposatutako helburuak eta ekintzak Udaleko Euskara Kontseiluan landutakoa abiapuntutzat hartuta zehaztu dira. Hala, Euskara Kontseiluan herriko hainbat eragilek hartu dute parte, eta beraien ekarpenak oso baliagarriak izan dira. Udaleko euskara zerbitzuak, bestalde, dokumentu teknikoa garatu eta ekarpenak mamitu eta ondu ditu.

Kontuak kontu, ESEParen helburu nagusiak ondokoak dira:

- Batetik, hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea euskaraz bizi nahi duten herritarrentzat: herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Bestetik, euskararen aldeko urratsak areagotzea (maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean) euskararen berreskurapen osoa lortzeko:
 - ✚ Euskararen hiztun kopurua igotzea.
 - ✚ Euskara gehiago eta hobeto ikasteko aukeretan sakontzea.
 - ✚ Sistema teknologiko eta digitalean euskarak presentzia handiagoa izatea.

3. DIAGNOSTIKOA: ahulguneak, indar-guneak eta lehentasunak

Datorren lau urteetarako plana bete-betean lantzerantz sartu aurretik, egungo egoera zein den aztertzea beharrezkoa iruditu zitzaigun, analisia egin eta ahulgune, indar-gune eta lehentasunak zehazteko. Horretarako, esan bezala, Euskara Kontseiluaren laguntza izan dugu, eta datu objektiboetatik abiatuta iritziak eta kezkak plazaratzeko gunea izan da.

Bertan batutako askotariko eragileek bat egin zuten aurrez aipatutako gaien artean (kirola, etorkinak, kultura, hezkuntza, merkataritza, hedabideak) lehentasuna zehazterakoan. Hala, gaztetxoengan duen garrantziagatik eta Durangon dagoen kirol talde kopuruagatik kirolari lehentasuna ematea erabaki zen. Aldiz, bigarren maila batean, etorkinak eta merkataritza kokatu ziren, horiek ere Durango euskalduntzeko funtsezkoak direla iritzita.

Ahulguneei eta indar-guneei dagokionez, orokorrean lehenengo horietan jarri genuen fokoa, egungo egoera hobetze aldera. Laburbilduta, besteak beste, esan daiteke honako ondorioetara iritsi ginela:

- Durango euskalduntzeko helburuarekin beharrezkoa da haur eta gaztetxoengan arreta jartzea. Izan ere, hauek adin erabakigarriak dira hizkuntza hautuari dagokionez. Aldi berean, helduak ere estrategikoak izan daitezke. Izan ere, haurrek eta gazteek helduek egiten dutenari erreparatzen diote. Horregatik funtsezkoa da aisia (eta eremu informalak, eskolaz harago) euskaraz bizitzeko aukerak izatea. Bide horretan, kirol talde eta bestelako eragileekin kontaktua mantentzea beharrezkoa da, beraien barne eta kanpo jarduna euskalduntzeko, zein monitore eta hezitzaileen euskara mailari erreparatzeko.
- Horrez gain, Durangon merkataritza sare handia dago, durangarren egunerokotasunean presentzia nabaria duena. Hartu eman horiek euskaraz izan ahal izateak Durango euskalduntzearen bidea asko erraztuko luke. Horretarako bi

aldeetan erreparatu beharra dago: batetik, merkatari eta ostalariengan (kontzientzia piztuz, euskara ikasteko ikastaroak antolatuz...) eta bestetik, bezeroengan (lotsa kentzeko dinamikak landuz, lehen pausua euskaraz ematera animatuz..).

- Azkenik, ez dago dudarik immigrazioa ere garrantzizko gaia dela. Durangora bizitzera etorri diren etorkinen kopurua handituz doa urterik urte, eta joera horrek bere horretan jarraituko duela suposatu dezakegu. Bide horretan, Durangora datozenek euskara integrazio tresnatzat uler dezaten lan egitea, eta haien beharrei egokitutako eskaintza eta laguntza ematea ezinbestekoak dira.

4. PLANA DISEINATZEKO PROZESUA

AROA Plana diseinatzeke zenbait pausu jarraitu dira:

- Udaleko euskara sailak prozesua abian jarria zuen.
- Udaleko Euskara Kontseilua berriro ere martxan jarri zen, herriko zenbait eragilerekkin.
- 2024ko udaberrian eta udazkenean guztira 5 Euskara Kontseilu egin dira (apirila, maiatza, ekaina, iraila eta urria), eta horietan Durangoko egoeraren diagnostikoa egin eta bertaratuen iritzia eta usteak partekatu dira.
- Euskara zerbitzutik lanketaren jarraipena eta planaren diseinua egiten hasi ginen, Euskara Kontseiluetan bildutako informazioari jarraiki.
- Azkeneko Euskara Kontseiluan AROA Planaren azalpena eman zen, eta behin eragileei dokumentua aurkeztuta, ekarpenak egiteko zazpi eguneko epea eman zitzaien.
- Ondoren, Plana Herrigintza batzordean aurkeztuko da, honek irizpena eman dezan. Ekarpenik edo desadostasunik egonez gero, Euskara Plana egokitzeko tarte bat egongo da. Behin epe hori pasatuta, osoko bilkuran eztabaidatuko da, eta hala iritziz gero, bertan onartuko da.

5. ZEHARLERROAK

Prozesu osoan zehar kontuan izan da zeharlerrotasuna. Aurrelanetik hasita udaleko hainbat arlo inplikatzeko ahalegina egin da. Horrez gain, prozesuan eta emaitzan genero ikuspegia, parte-hartzea, aniztasuna, ingurumena, hizkuntzen kudeaketa eta abar kontuan hartu dira. Genero ikuspegia ekintza, programa eta proiektuetan txertatzeko honako irizpideak jarraituko dira:

- Datu kuantitatiboetan sexuak bereizita jaso eta irakurketa berezitua egin (erregistro-orriak, gogobetetze-inkestak, galdeketak...).
- Informazio kualitatiboa jasotzerakoan emakumezkoak zein gizonezkoak bermatu iturri gisa (elkarriketetan, lan taldeetan...). Kopuru orekatuak.
- Emakumeen ahotsa bermatu (esparru eta gune desberdinetan presente egon, haien ikuspegia jaso eta bozeramaile eta ardura karguak har ditzaten sustatu).
- Komunikazio ez-sexista eta hizkera inklusiboa bermatu (irudietan, ahozko zein idatzizko hizkuntzan).
- Datuen genero irakurketak egin eta zabaldu.
- Bateragarritasuna erraztu (bilaren orduak jartzerakoan, gurasoentzako haurtzaindegi-zerbitzua jarri behar den baloratu...).
- Bilera tokiak baloratu (irigarritasuna, horien ohiko erabiltzaileak zeintzuk diren...).
- Hartutako neurriek emakumeengan eta gizonengan izan dezakeen eraginaz hausnartu.
- Proiektuetan aritzen diren pertsonen ardurak banatzeko garaian genero-ikuspegia kontuan hartu, ardurak orekatuta egon daitezzen.

Genero ikuspegia eta aipatutako irizpideak txertatzeko berdintasuneko sailarekin elkarlanean aritzea aurreikusten da.

6. EDUKIA

Esan bezala, plan honen edukia zazpi ardatzetan banatuta dago, ardatz bakoitzaren barruan bestelako azpisailkapen batzuk ezarriz. Eskema orokorra excel dokumentuan dago jasota. Hala ere, jarraian ekintza bakoitzaren azalpen txikia egingo da, bakoitzaren erreferentzia adieraziz. Aurreko urteetatik balorazio positiboa izan duten ekintza eta ekimenak mantendu eta horietan sakondu da, eta ekarpen berriak ere gehitu dira.

GOVERNANTZA

G.1.1.1.1. Hizkuntza eskubideen urraketarako bulegoa sortu.

Euskaraz bizi ahal izatea, eta administrazio publikoekin euskaraz harremantzea herritarron eskubidea da. Horregatik, urraketa mota hauetarako lanketa espezifiko eta desberdindua beharrezkoa dela ulertzen da, edozein herritarrek bere iritzia eman edo kexa jarri dezan.

G.1.1.2.1. Hizkuntza eskubideen inguruko hitzaldiak antolatu.

Normalizazioaren bidean kontzientziazioa ezinbesteko gakoa da, eta horretarako hitzaldiak baliabide egokiak dira. Urtean kontzientziaziorako hitzaldi batzuk antolatzea proposatzen da (Bizenta Mogel Liburutegiarekin, Udal euskaltegiarekin, herriko euskaltegiarekin eta hizkuntza eskolarekin elkarlanean), euskalgintzaren munduko figura ezagunek emandakoak.

G.1.2.1.1. Udaleko euskara batzordea sortu.

Euskara, bere horretan, zehar lerro bat da, bizitzako, eta kasu honetan, administrazioari atal guztietan txertatu behar dena. Horregatik udaleko euskara batzordea sortzea komenigarria da, bere sail guztien arteko koordinazioa bilatzeko euskararen esparruan.

G.1.2.1.2. Erakunde arteko proiektuen berri izan eta martxan jarri.

Udalak beste administrazio batzuekin elkarlanean dirau (izan Diputazioa, Eusko Jaurlaritza...). Horregatik, euskararen arloan horiek plazaratzen dituzten proiektuen berri izatea eta interesa izanez gero horietara batzea da helburua.

G.1.2.2.1 Ikastetxeekin batera hizkuntza biziberritzeko Udal Eskola Kontseilua baliatu.

Ikastetxeek eragin handia dute gaztetxo eta nerabeen hizkuntza hautuetan. Udal eskola kontseilua erabiliko da egoera partekatu, iritzia eman eta erabakiak hartu ahal izateko.

G.1.2.2.2. Euskara arloko eskaintza aktiboa mantendu, euskalgintzako eragileekin elkarlanean.

Administrazioarekin ez ezik, euskalgintzako gainerako eragileekin elkarlana eta komunikazioa mantentzea garrantzitsua da, herritarrei zerbitzu oso eta bateratua eskaintzeko.

G.1.2.2.3. Herrian euskara sustatzeko dauden eragile, zerbitzu eta laguntzen mapa osatu eta zabaldu.

Askotan zerbitzuak egon bai, baina herritarrek ez dituzte ezagutzen. Hargatik, ezinbestekoa da hauen zabalkunde egokia egitea, herritarrek beraien esku dauzkaten baliabideen berri izan dezaten.

G.1.2.3.1. Euskararen erabileran erreferenteak diren edo izan daitezkeen elkarteak identifikatu, eurekin elkarlana areagotzeko.

Durangon dauden elkarteekin harremanetan jarri, euskara sustatzeko eta elkarlanean jarduteko prestu zeintzuk dauden identifikatzeko.

G.1.2.3.2. Euskara arloan eragile izan daitezkeen elkarte eta erakundeak identifikatu, eta erreferentziazko pertsonak izendatu elkarlanerako.

Aurreko puntuarekin lotuta, egile horiekin zubi lana egiteko pertsonak izendatzea.

G.1.2.3.3. Erakunde eta elkarte desberdinetan euskara planak abiatzeko bideak aztertu.

Durangoko elkarte eta erakunde desberdinen artean euskara plana sortu eta garatzeko prest zeintzuk egongo liratekeen aztertu, eta baiezkoa izatekotan, hauei laguntza teknikoa eskaini.

G.1.2.3.4. Ekimen ezberdinetarako erabiltzen diren diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak diseinatu eta txertatu.

Udaletxeak ekintza ezberdinak egiteko ematen dituen diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak diseinatu eta diru-laguntza deialdien oinarrietan txertatuko ditu.

G.1.3.1.1. Hausnarketa saioak egin eta formazioa eman arduradun politiko eta teknikoei.

Euskararekiko kontzientzia eta formakuntzan sakontzeko, garrantzitsua da erabakiak hartzen dituzten pertsonak prestatuta egotea. Bide horretan, hausnarketa saioak eta formazio espezifikoa eskaini behar dira.

G.1.3.3.1. Udalaren erabilera plana martxan jarri.

Udalak, kanpora ez ezik, barrurantz ere hartu behar ditu erabakiak, haren langileei eragingo diotenak. Hala, lau urteko epe horretan udalaren erabilera plana sortu eta martxan jartzea aurreikusten da.

G.1.3.3.2. Udalaren euskara planaren berri eman herritarrei.

Aurrekoarekin lotuta, euskara plana sortu eta martxan jartzeaz gain herritarrei horren berri emango zaie.

G.1.3.3.3. Langileen kontratueta hizkuntza irizpideak txertatu.

Durangoko Udalean lanean hasten diren langileen kontratueta hizkuntza irizpideak ezartzea beharrezkoa da. Langile hauek herritarrekin hartu-eman zuzena dute, eta hauei administrazioarekin euskaraz komunikatzeko eskubidea bermatu behar zaie .

G.1.3.3.4. Euskara sustatzeko udal araudia langileen artean sozializatu.

Udaleko langileak euskara sustatzeko udal araudiaren jakitun izan behar dira.

G.1.3.4.1. Baliabideen egokitasunaren eta nahikotasunaren inguruko hausnarketa egin.

Euskara zerbitzuak zerbitzu egokia emateko beharrezko baliabide denak dituen hausnartzea da helburua, behar izanez gero egokitze.

G.2.1.2.1. Herriko aniztasunaren diagnostikoa egin.

Herriko egoeraren berri izateko, bertan bizi diren hizkuntzen diagnostikoa egitea proposatzen da.

G.2.1.2.2. Aurreiritzi eta zurrumurruei aurre egiteko estrategiak landu.

Mingarriak eta kaltegarriak izan daitezkeen zenbait diskurtso eta mezuren aurrean zein postura eta estrategia hartu erabaki behar da.

G.2.3.1.1. Zeharlerrotasunerako markoa eraiki (egituraketa, eragin eremua, baliabideak...).

Euskara zeharlerrotzat hartu behar da, eta udaleko eta herriko eremu guztietan integratu. Horretarako marko bat eratzea planteatzen da.

G.2.3.2.1. Herriko eragile batzuekin lankidetzak ekimenak martxan jarri.

Udalak, herriko eragile gisa, herriko beste eragile batzuekin elkarlanean eraman behar du aurrera Euskara Plana.

G.2.3.3.1. Udaleko Hezkuntza Kontseiluan parte hartu (euskara zerbitzutik) eta zeharka gaia landu.

Hezkuntzak pisu handia du gazte eta nerabeengan eta baita Durangon ere (hainbat ikastetxez osatuta baitago). Hala, euskararen zeharlerrotasuna lantze aldera garrantzitsua da udaleko hezkuntza kontseiluan parte-hartzea eta estrategia lantzea. Kontseilu hau eratu barik dago une honetan, baina eratzeko asmoa dago. Bitartean, udaleko eskola kontseiluan (hezkuntza formala) eta hezkuntza foroan (hezkuntza formala eta ez formala) parte hartuz gauzatuko da zehar-lana.

G.2.3.3.2. Kulturartekotasun proiektuak bultzatu.

Anitza den gizarte batean bizi gara, non kultura desberdinak bizikidetzan bizi diren. Horregatik beraien elkarlana sustatzea eta bultzatzea da helburua.

G.3.1.1.1. Bertako eragileen eta beste hizkuntza komunitate batzuetako eragileen arteko sareak osatu.

Durangon, euskaraz gain, beste hizkuntza batzuk ere mintzo dira. Horien arteko elkarbizitza sareak eratzeak gertutasuna eta ulermena sustatzen du.

G.3.1.2.1. Horretan dabiltzan eragileekin (Garabide...) elkarlan aukerak identifikatu.

Euskara, jakina denez, hizkuntza gutxitua da. Hala, hizkuntza gutxituekin lan egiten duten eragileekin lankidetzak planteatzea interesgarria izan daiteke.

G.4.1.3.1. Sare sozialetan edukia sortzen duten herritar erreferenteak ikusarazi.

Euskara Kontseiluan argi ikusi zen, besteak beste, sare sozialetan jarri behar dela fokua, batez ere gaztetxoek denbora asko pasatzen dutelako bertan. Beraz, garrantzitsua da sare sozialetan edukia euskaraz sortzea eta eskuragarri izatea.

G.4.1.3.2. Herriko gaien inguruan eduki digitalak sortu.

Aurreko puntuari lotuta, esan bezala, ezinbestekoa da eduki digitala euskaraz sortzea, egungo eskariari aurre egiteko. Edukiaren zati batek Durangori erreferentzia egitea egokia litzateke.

G.4.1.3.3. Gazteak inplikatu edukiak sortzeko prozesuetan, lehiaketak antolatuz.

Gazteak, edukiak kontsumitzeaz gain, sortzaile oso trebeak dira. Modu erakargarri batean (lehiaketen bidez, esaterako) beraien parte-hartzea lortuz gero inplikazioa areagotuko luke (baita maila linguistikoan). Ekintza hau Gazteen kontseiluan landuko da udaleko euskara zerbitzuarekin elkarlanean.

G.4.1.3.4. Herriko eduki sortzaileei laguntza ekonomikoa eta teknikoa eman.

Euskal komunitate digitala eta beraien sormen lana babestea onuragarria litzateke, gertuko edukia euskaraz jasotzeko aukera emango lukelako. Horregatik sortzaile horiei laguntza ekonomikoa eta teknikoa ematea proposatzen da.

G.4.1.3.5. Herriko kultur/kirol mugimenduei beraien sare sozialak euskaratzeko laguntza ekonomikoa eta teknikoa eman.

Durango kirol/kultur mugimendu eta sare zabala dago. Durango euskalduntzeko ezinbestekoa da hauen jarduna ere euskalduntzea. Gainera, esan bezala, sare sozialek eta eremu digitalak gero eta garrantzia handiagoa dute. Horregatik garrantzitsua da eragile hauek sare sozialak euskaraz izatea.

G.4.1.3.6. Euskara Sailaren webgunea, facebook eta X kontuak etengabe elikatu, eta irigarriak eta erakargarriak izateko komunikazio eta zabalkunde estrategia egokia diseinatu.

Herriko gainerako eragileen gisan Durangoko Udalak ere, kasu honetan Euskara Sailak, mundu digitalean irigarria, erakargarria eta ulergarria izatea lortu behar du, ahalik eta jende gehiagorengana iristeko.

G.4.1.3.7. Udal sailetakoa sare sozialetan (Facebook, X, Instagram...) euskararen erabilera lehenetsi eta udal langileak trebatu sare sozialetan euskararen erabilera egokia egiteko.

Gai honetan ere Udalak eredu izan behar du. Horregatik, sareetan euskararen erabilera lehenetsi behar da, gazteleraren aurretik, eta langileak trebatu erabilera egokia egiteko.

G.4.1.3.8. Aurrera eramaten diren ekintza, egitasmo, programa, kanpaina eta abarren euskarri digitalak sortu sareetan hauen berri emateko eta zabaltzeko.

Aurreko ildo beretik, euskarazko euskarri digitalen bidez mundu digitalean euskarazko eduki eguneratua kontsumitzeko aukera bermatu nahi da.

JARRERAK - MOTIBAZIOAK

JM.1.1.1.1. Hizkuntza paisaia euskalduntzeko kanpainak egin.

Kaleko hizkuntzak paisaiak garrantzia handia du Durango euskalduntzeko bidean. Horregatik herriko eragileengan (merkatari, ostalari...) kontzientzia piztea lortu nahi da, eta Udala eredugarri izatea (bere esku dauden kartel, eta bestelako panelak euskaraz jarritz, edo behintzat lehentasuna emanez).

JM.1.1.2.1. Euskaraz eroso eta segurtasunez aritzeko eta kontzientzia hartzeko ahalduntze ikastaroak.

Euskalduntze prozesuan lehen pausuetako bat euskara ikastea izan ohi da. Hala ere, askok hizkuntzaren oinarritzko mailaren jabe izan arren, gero ez dute hau praktikan jartzeko ingurune egokirik izaten. Ikastaro hauen helburua gabezia hori estaltzea litzateke, eta ahalduntze prozesuan pausuak ematea.

JM.1.1.2.2. Guraso/familia tipologia ezberdinentzako estrategiak eta euskarriak sortu (hizkuntza ohiturei lotuta).

Hizkuntza ohiturei dagokienez, familia eredu ugari existitzen dira. Baliteke gurasoetako batek soilik jakitea euskaraz, baliteke biak hizkuntza ikasten egotea, edo etxean euskaraz hitz bat bera ere ez egitea... Hala, estrategiak pentsatzerakoan familia eredu guzti horiek buruan izan behar dira, bakoitzarentzat eduki egokia sortuz.

JM. 1.1.2.3. Haur jaio berrientzako opariak: Eman giltza eta Bularretik mintzora egitasmoak.

Familiek seme-alaben hizkuntza ohituretan eragin zuzena dute. Aipatutako bi proiektuek etxeko txikien hizkuntza hautuetan eragitea dute xede. Aurreko urteetan ere harrera ona izan dute Durangon, eta datozen urteetan bide horretan jarraitzea da asmoa.

JM.1.1.3.1. Euskara ikasteko aukera berriak sortu (ikastaro bereziak, bestelakoak...), beren beharretatik gertuago: gurasoak, aitona-amonak, atzerritarrak, dendariak, zinegotziak, begiraleak, entrenatzaileak...

Euskara ikastea euskalduntzeko lehenengo pausua dela esan daiteke. Bide horretan, ahalik eta jende gehiagorengana heltzea da helburua, eta eskaintza eskarira egokitzea, hots, ikastaro espezifikoa sortzea hartzaile talde bakoitzarentzat.

JM.1.1.3.2. Euskara ikasleei, eta oro har, ezagutza mugatua edo pasiboa dutenei, erabilera aukerak eskaini, aisialdiari lotuta.

Euskara ikasi ostean, garrantzitsua da hau praktikan jartzeko eremu egokia eskaintzea, batez ere aisiari lotuta, derrigortasun kutsua izan ez dezan.

JM.1.1.3.3. Berbalagun bezalako programak sustatu (baita bere aldaerak ere): Oraingo kontratua amaitutakoan lizitaziora ateratzea berriz ere.

Aurreko puntuari lotuta, euskara maila desberdina dutenei hau mintzatzeko aukera eskaintzea da helburua, aurreiritzi eta presiorik gabe. Orain arteko dinamikarekin jarraitu nahi da, Berbalagun proiektuaren bidez. Indarrean dagoen lau urteko kontratua amaitutakoan lizitaziora aterako da.

JM.1.1.3.4. Euskaltegiak bultzatzeko kanpainak egin.

Euskalduntze prozesuan hain garrantzitsuak diren euskaltegiei laguntza eman behar zaie, izan matrikulazio kanpainan, ikusgarritasunean...

JM.1.2.1.1. Gizartea aktibatzeke ekimenak martxan jarri: Euskaraldia...

2025eko udaberrian berriz ere Euskaraldia jarriko da martxan. Durangoko biztanleak euskararen alde aktibatzeke aukera ezin hobea izango da.

JM.1.2.1.2. Turismoan eta ostalaritzan euskararen identitatea bultzatu. Lehen hitza euskaraz egiteke kanpainak.

Sarri bi aldeek euskaraz jakin arren bestelako arrazoiek lehen pausua euskaraz egitea eragozten digute. Beldur eta lotsa horiek gainditzeko kanpaina espezifikoak martxan jartzea da asmoa.

JM.1.2.1.3. Sentsibilizazioa eta motibazioa landu merkatari eta ostalariak Ahobizi eta Belarriprest izan daitezen.

Aurrez esan bezala, Euskaraldiak biztanleria aktibatzeke balio dezake, eta baita ostalaritza eta merkataritzako langileak ere. Garrantzitsua da hauek rol aktiboa hartzeke kontzientzia lantzea, herritarren eguneroko hartu-emanetan hauek duten pisua kontuan izanda.

JM.1.2.2.1. Enpresetan euskara planen sustapena egin.

Udaletxeaz gain, herriko bestelako enpresetan ere euskara planen garapena sustatu behar da, langileak euskalduntzeke. Bide horretan, LANDUE proiektua ere aipatzekoa da.

JM.1.2.2.2. Euskaraz barra-barra, Harrobi edota Bikain bultzatu udalerriko entitate publiko eta pribatuetan.

Aurreko puntuari lotuta, euskaraz artatua izatea eta bestelako gutxieneko baldintzak bermatzen dituzten entitate publiko eta enpresetan aipatutako ziurtagiriak bultzatzea da asmoa, erabiltzaile eta bezeroek identifikatu ahal izateko, eta aldi berean, entitate eta enpresa hauei nolabaiteko aitortza emateko.

JM.1.2.2.3. Enpresetan praktikak euskaraz egiteko sustapen lana egin.

Ikasleek lan mundura egiten duten trantsizio horretan praktikak euskaraz egin ahal izateko aukera eskaintzea da asmoa, lanean euskara egiteko ohitura har dezaten eta beraien ikasketak praktikan euskaraz jar ditzaten. Zentzu horretan, LANDUE proiektuaren laguntza dago.

JM.1.2.2.4. Gazteek euskaraz ikasten jarraitu dezaten sustatzeko egitasmoak antolatu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik Batxilergora eta Batxilergotik Unibertsitatera edota Lanbide-Heziketara salto egitean ikasketa hizkuntzaren hautua parez pare jartzen da berriro. Hala, pausu hori egitean euskara hautatzeko kontzientziakzioa landu behar da.

JM.1.2.2.5. Merkatari, dendari, elkarte eta bestelako eragileentzako itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskaini: GUK EUSKARAZ.

Udalak, laguntza teknikoa eskaini behar die herriko merkatari, dendari eta bestelako eragileei, beraien barne eta kanpo testuak euskaratzeko eta aholkularitza emateko. Orain arte legez bide berean jarraitzea da asmoa.

JM.1.2.2.6. Euskararen telefonoaren zabalkunde estrategia egokia pentsatu eta martxan jarri.

Aurreko puntuari lotuta, itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskaintzeko euskararen telefonoa dago. Aurten hari lotutako korreo elektronikoa aldatu da, eta baita bere irudia ere. Horregatik, irudi berria ikusarazteko estrategia egokia pentsatzea tokatzen da orain, herritarrei baliabideen berri emateko.

JM.1.2.2.7. Durangoko merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresentzako euskararen erabilera areagotzeko dekalogoaren eta bestelako informazio baliagarriaren zabalkunde estrategia egokia prentsatu eta martxan jarri, Dendak Bairekin elkarlanean.

Euskara Sailak eta Dendak Bai Elkartek Durangoko merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresentzako euskararen erabilera areagotzeko dekalogo sortu dute, elkarlanean. Orain hori sozializatzeko eta zabaltzeko estrategia egokia pentsatzean jarri nahi da, fokoa ahalik eta jende gehiagorengana heldu dadin.

JM.1.2.2.8. Kaishop edo Biribilko bezalako webguneen beharra aztertu/planteatu, eta hala iriztekotan, garatu.

Bilboko eta Getxoko Udaletan merkatari eta ostalariei eskainitako zerbitzu eta baliabide guztiekin osatutako webguneak dituzte. Durangon ere horrelako zerbaiten beharrik dagoen eta baliagarria izango litzatekeen hausnartzea komeni da.

JM.1.2.2.9. Merkataritza eta ostalaritzarako protokoloa eratu, euskararen inguruan kontuan izan behar duten guztiarekin: euskara lehenesteko gomendioak, dirulaguntzen berri eman, langileek euskaraz hitz egiteko lanketak egin...

Dekalogoarekin lotuta, merkataritza eta ostalaritza arloko protokoloa eratzea izango litzateke hurrengo pausua.

JM.1.2.2.10. Durangoko museora bisita gidatuak antolatu AEK-ko eta Udal Euskaltegiko ikasleekin.

Ikasleei arteaz gozatzeko eta euskara praktikatzeko aukera ematen die.

JM.1.3.1.1. Euskararen eguna / astea antolatu.

Abenduaren hirua egun garrantzitsua izaten da euskararen agendan, sinbolikoa. Haren bueltan ekintza, hitzaldi edo kultur ekitaldiren bat egitea planteatzen da.

JM.1.3.1.2. Herriko euskararen aldeko diskurtsoa landu.

Udalak Durangon euskararen inguruan zabaldu nahi duen diskurtsoaren lanketa egin behar du.

JM.1.3.2.1. Ahalduntze eskolak, ahalduntze taldeak, ahalduntze ikastaroak eta tankerakoak antolatu.

Euskara jakin bai, baina ahalduntzea falta zaien hiztunei zuzendutako ikastaroak izango dira.

JM.1.3.2.2. Estrategikoak direnei formazio soziolinguistikoa eman (begiraleak, entrenatzaileak, herriko sortzaileak...).

Zenbait pertsona (beraien lanbide, izaera edo beste ezaugarriren batengatik) erreferenteak izan daitezke, baita maila linguistikoa ere. Horiei formazio linguistikoa ematea beraien ingurua euskalduntzeko gakoa da.

JM.1.3.3.1. Gazteak kultur ekintzetara animatu, bonu eta prezio bereziak jarritz eta eskaintza erakargarria prestatuz.

Herriko gazteenek aisialdia euskaraz kontsumitu dezaten dirulaguntzak eman eta ekintza interesgarri eta erakargarriak antolatzea da helburua, eskolaz kanpo ere euskaraz bizitzeko ekosistema izan dezaten.

JM.1.3.3.2. Ume eta gazteak kultur-hartzaile izan daitezen beraiei egokitutako eskaintza sortu, gazteria eta kultura sailekin eta San Agustin Kultur Gunearekin elkarlanean: Uda Topera, udal ludoteka, udalekuak, ikuskizunak...

Aurreko puntuarekin lotuta, gaztetxoentzako kultur-eskaintza erakargarria garatu behar da, izan udalekuak, liburutegiko ikastaroak...

JM.1.3.3.3. Familian euskaraz olgetan: 3-5 urte arteko haurrentzat eta beraien familientzat jolas dinamizazioa. Kantu liburua.

Etxeko txikienek euskaraz ikasi eta gozatu dezaten kantu liburua garapen prozesuan dago orain. Behin hau edukita familien artean sozializatu eta zabaldu beharra dago.

JM.1.3.3.4. Batxilergoko. Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Erdi mailako Lanbide Heziketako ikasleen artean motibazioa piztu eta euskararen erabilera bultzatu: Zeresana dokumentalaren lanketa, Aldagela proiektua...

Batzilergoko, Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Erdi mailako Lanbide Heziketako ikasleen artean euskararen erabilera eta hausnarketa bultzatzeko pentsatutako ekintzak dira. Zeresana dokumentala YouTubean dago ikusgai, baina hau dinamizatzeko estrategian fokoa jartzea beharrezkoa da.

JM.1.3.3.5. Geruzak proiektua: Batxilergoko, Oinarrizko Lanbide Heziketako, Erdi mailako Lanbide Heziketako eta Goi mailako Lanbide Heziketako ikasleekin euskaratik eta euskaraz lanketak egin. Edukiaren berri eman ikastetxeei eta dinamizazio tailer posibleak aztertu.

Geruzak ikus-entzunezko proiektua mundu guztiarentzat dago eskuragarri Interneten. Honek hausnarketa bultzatzen du euskaratik eta euskaraz. Ikastetxeei baliabide honen

berri emateko zabalkundea egitea proposatzen da, eta dinamizazio saio posibleak planteatzea, proiektuan parte hartu duten gaztetxoak ikastetxeetara hurbiltzeko.

JM.1.3.3.6. Ikasketak euskaraz egiteko Nahi dudalako ekimena ikastetxeetan aurrera eraman.

Aurreko ildotik jarraituta, ikasketak euskaraz eta euskaratik egiteko ekimena ikastetxeetara hurbildu eta lantzea lortu nahi da.

JM.1.3.4.1. Herriko leku estrategiko eta sarreretan "herri euskalduna" gisako kartelak jarri.

Durangora bisitan, lanera... datozen horiek Durangok herri euskalduna izan nahi duela argi izateko mezuak dira.

JM.1.3.4.2. Euskararen etxea edo tankerako espazioen sorrera sustatu.

Horrelako espazio bat herrian euskararekiko dagoen konpromezu mailaren erakusle izango litzateke.

JM.1.3.4.3. Nerabe-gazteekin elkarlanean, eurentzat erreferente izan daitezkeen pertsonekin saioak antolatu.

Nerabeek erreferenteak behar dituzte, erreferente euskaldunak. Durangon edo Durangaldean egon daitezkeen horiek identifikatu eta gazteekin saioak antolatzea aukera polita izan daiteke.

JM.1.3.5.1. Euskararen agenda egin.

Urtean zehar euskarari lotuta herrian egingo diren ekintzak dokumentu batean bildu eta horien zabalkundea bideratzea da ekintza honen helburua.

JM.1.3.5.2. Durangoko euskarazko kultur ekintzen agenda sortu, eta sarean, prentsan eta kalean zabaltu eta ikusgarritasuna eman, San Agustin Kultur Gunearekin elkarlanean.

Aurreko puntuarekin lotuta, zehazki kultur ekintzen agenda sortzea ere komeni da, eta honi zabalkunde egokia ematea.

JM.1.3.5.3. Euskarazko produktuen katalogoa egin eta banatu.

Euskarazko produktuak kontsumitzeko hauen berri ematen duen katalogoa egitea proposatzen da, herritarren eskura jartzeko.

JM.1.3.5.4. Euskarazko produktu berrien aurkezpenak bultzatu (jokoak, haur literatura).

Euskarazko produktuen katalogoaz gain, produktu berrian aurkezpenak egitea egokia izan daiteke, jendarteari haun berri emateko.

JM.2.1.1.1. Kultura ekitaldiak antolatu: kontzertuak, irakurle kluba, bertso saioak, lehiaketak, zinea euskaraz, antzerkia euskaraz... San Agustin Kultur Gunearen programazioa.

Euskarazko kultur eta aisialdi eskaintza bermatu behar da.

JM.2.1.1.2. Durangoko Azoka DA! antolatu. Hitzarmena Gerediaga elkartearen eta udaleko kultura sailaren artean.

Urtero antolatzen da Durangoko Azoka, Euskal Herri osoko kulturgile eta kulturzaileen topaleku dena.

JM.2.1.1.3. Euskal testuen irakurketa publikoak bultzatu: Hitzez eta ahotzez egitasmoa.

Urtero antolatzen den ekimena da hau, euskal testuak ahoz goran irakurtzeko.

JM.2.2.2.1. Eskoletan hizkuntza irizpideak zehazteko edo berritzeko aholkularitza eman.

Eskolek euskalduntze prozesuan lan handia egiten dute. Bide horretan herriko ikastetxeei behar duten aholkularitza zerbitzu teknikoa eman behar zaie.

JM.2.2.2.2. Ikastetxeen artean praktika onak konpartitu.

Ondokoaren praktika onei erreparatzea garrantzitsua da, horiek zabaldu eta orokortzeko.

JM.2.2.2.3. Herriko hezkuntza komunitatearen hizkuntza beharrak jaso.

Erantzun egokia eman ahal izateko, lehendabizi ezinbestekoa da herriko ikastetxeekin beraien beharrak identifikatzea eta kezak entzutea.

JM.2.2.2.4. Gazteek euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko egitasmoak antolatu.

Aurrez aipatutako egitasmoez gain, gazteen kontzientziazioa eta sentsibilizazioa lantzeko bestelako ekintzak landu behar dira.

JM.2.2.2.5. LH, DBH eta Batxilergoan, oinarrizko, erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketan txertatu euskal kulturaren arloko jarduerak: Santa Agenda, Txitxiburduntzi, Inauteriak, Gaztañerre, Gabonak...

Hezkuntzan euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia duten ekintzak eta ospakizunak antolatu behar dira, horien bidez gaztetxoak euskarara hurbiltzeko.

JM.2.2.2.6. *Durango ezagutu* herri curriculum eguneratu eta bere erabilera dinamizatu eskoletan.

Durango ezagutu proiektua eta bere webgunea eguneratu eta horietan edukia gehitu behar da, eta honen erabilera ikastetxeetan dinamizatu.

JM. 2.2.5.1. Turistentzako/herrira hurbiltzen direnentzako gidak, hiztegitxoak... sortu eta zabaltu.

Durango ezagutzera datozen horientzako hiztegi espezifikoak sortu daitezke, oinarrizko hitzekin, informazio bulegoan eskuragarri jarri daitezkeenak.

JM.2.2.5.2. Turismoaren arloan ongi etorri euskararen herrira bezalako egitasmoak martxan jarri.

Aurrekoari lotuta, turistak euskarara hurbiltzeko egitasmoak martxan jarri daitezke.

JM.2.2.6.1. Hizkuntza gutxituekin lan egiten duten erakunde eta pertsonekin elkarlana sustatu.

Hizkuntza gutxituen artean babes sareak sortzeko helburuarekin, hauekin lan egiten duten erakundeekin lankidetzat sustatu behar litzateke.

JM.2.4.1.1. Guraso berrien hizkuntza ohituretan eragiteko kanpainak egin: gutunak, bertsoak, opariak...

Guraso berriak hizkuntza hautuak izan dezakeen garrantziaz kontzientziatu eta euskarara hurbiltzeko materiala eta bestelakoak banatzea proposatzen da. Bide horretatik doaz aurrez aipatutako *Eman giltza* eta *Bularretik mintzora* egitasmoak.

JM.2.4.2.1. Identitate ezberdinen inguruko lanketa egin eta estrategiak sortu.

Euskararen bueltan identitate ugari egon daitezke. Horien inguruko lanketak egitea eta euskalduntzeko estrategiak bilatzea lortu nahi da.

JM.2.4.3.1. Immigrazio sailarekin eta gainontzeko eragileekin harrera protokolo bateratua eratu euskaratik: zerbitzu guztien katalogo bateratua.

Etorkinak Durangon erroldatzen direnean, beraien eskura dituzten zerbitzu guztien katalogoa ematea da helburua, horien artean baita euskararekin zerikusia dutenak ere, integrazioarako elementu gisa.

JM.2.4.4.2. Kulturartekotasun proiektuak bultzatu: munduko arrozak, euskal jaiak...

Kulturen arteko bizikidetza eta harremana bultzatzen dituzten ekimenak eta proiektuak martxan jartzea aberasgarria da elkarbizitzarako, eta kulturaren bidez euskarara hurbiltzeko.

JM.2.4.5.1. Hizkuntza aniztasunari buruzko hausnarketa saioak antolatu.

Gure herrian euskara eta bestelako hizkuntzak elkarbizitzan daude. Errealitatea linguistikoa hobeto ulertzeko hizkuntza aniztasunari buruzko hausnarketa bultzatzea proposatzen da.

EZAGUTZA - GAITASUNA

EG.1.1.2.1. Euskaraldian parte-hartzea sustatu.

2025ko udaberrian berriz ere Euskaraldia martxan jarriko da. Hala, herritarrei bertan parte hartzeko deia luzatu behar zaie.

EG.1.1.2.2. Euskaldunak ahalduntzeko tailerrak egin.

Euskalduntasunaren ahalduntzea lortzeko tailerrak egitea egokia izan liteke, beldurrak, lotsak eta aurreiritziak gainditzeko.

EG.1.2.2.1. Transmisioan laguntzeko baliabideak eskaini (liburuak, diskoak...), etxean euskarazko materiala izateko.

Euskararen transmisioan laguntzeko euskarri eta baliabideak eskaintzea egokia litzateke.

EG.2.1.1.1. Hitanoa bultzatzeko prozesuak martxan jarri.

Hitanoaren jakintza eta erabilera bultzatzeko ikastaroak eta pilulatxoak antolatzea proposatzen da.

EG.2.1.1.2. Bertako euskalkia irakasteko prozesuak martxan jarri.

Bertako euskalkia ikasteko interesa duten pertsonentzako ikastaro eta euskarri espezifikoak sortzea.

EG.2.1.2.1. Eskolaren curriculumean euskararen historia sozialari buruzko lanketak prestatu.

Eskoletan euskararen erabilera praktikoa lantzeaz gain, garrantzitsua da honen historia eta nondik norakoak aztertzea. Horregatik, eskola curriculumean sartzeko eduki espezifikoak sortzea eta dinamizatzea proposatzen da.

EG.2.1.2.2. Museoak antolatutako bisita gidatu, hitzaldi eta argitalpenak.

Durango museoak euskarazko bisita gidatu eta hitzaldiak antolatzen ditu, baita argitalpenak egin ere. Hala, kultura eta ondarrera sarbidea ahalbidetzen da, euskaratik eta euskaraz.

EG.2.2.2.1. Euskaltegietako ikasleei lagundu beka bidez.

Udalak euskaltegietako ikasleek matrikulei aurre egiteko bekak eman ohi ditu urtero. Hurrengo urteetan ere horrela izatea aurreikusten da.

EG.3.1. Etorkinek euskara ikasteko ikastaroak eskaini (AISA ikastaroak): ordutegi malgua, urte osoko jarraipena, eta helburu eta eskakizun zehatzetara egokituak (lanerako, hurrekin komunikatzeko, aisirako...).

Orain artean legez, etorkinek euskarazko oinarritzko kontzeptuak ikasteko eta lehenengo hartu-emana izateko AISA ikastaroekin jarraitzea proposatzen da, ordutegia eta gainerako ezaugarriak beraien beharretara egokituz.

EG.3.2. AISA ikastaroa egin duten atzerritarrentzat euskarako A1 maila ikasteko zubi lana egin. Hitzarmena sinatu herriko euskaltegiekin doakoa izan dadin.

AISA ikastaroak lehengo pausua emateko balio du, baina etorkinak euskalduntze aldera neurri gehiago hartzea beharrezkoa da. Askotan, dirua euskara ikasteko oztopo izan daiteke. Horregatik AISA ikastaroetatik datozen etorkinentzat A1 maila ikasteko doakotasuna planteatzen da.

EG.3.3. Euskara errefortzuak eskola ume eta gazteei (LH, BDH eta Oinarritzko Lanbide Heziketa): GUREAN.

Durangora etorri diren haur etorkinentzat euskara ikas dezaten eskola ordutik kanpoko euskara errefortzuak dira.

EG.3.4. GUREAN eskola errefortzuak bukatzen dituzten hurrei aisia euskaraz egiteko katalogoa/eskaintza eskaini eta bertara bideratu.

Euskara errefortzuak egin dituzten hurrei aisialdian euskaraz egiteko aukera eskaintzea da helburua, euskaraz hitz egiteko gune naturalak sor ditzaten.

EG.4.1.2.1. Ume zein gazteekin ahozketasuna eta komunikatzeko gaitasuna landu ikasgelan: GU ERE BERTSOTAN egitasmoa.

Euskararekin jolastuz ahozketasuna eta komunikazioa gaitasuna lantzeko proiektua da, bertsoen bidez. Orain arte Durangoko zenbait ikastetxetan egin da, eta hala jarraitzea da asmoa. Udalak, urtero, hitzarmena sinatzen du Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin *Gu Ere Bertsotan* egitasmoa diruz laguntzeko.

EG.4.1.2.2. Antzerki tailerrak sortu ahozketasuna lantzeko.

Bertsoaz gain, ahozketasuna lantzeko erraminta egokia da antzerkia. Euskaraz hitz egiteko gaitasuna lantzen lagun dezake.

EG.4.1.2.3. Gazte hizkera landu.

Hizkuntza ez da estatikoa, aldatzen eta egokitzen doan zerbait da. Horregatik gazteek darabilten hizkera lantzea eta aztertzea interesgarria litzateke.

EG.4.1.2.4. Haur eta gaztetxoek artean euskararen erabilera eta euskal literatura hedatu eta sormen ahalmenak garatzeko Haur Literatura Aretoa antolatu Durangoko Azokaren baitan.

Urtero lez Durangoko Azokaren baitan Haur eta Literatura Aretoa antolatzen da, haurren sormen gaitasuna lantzeko garrantzizkoa dena.

EG.4.1.2.5. Museoan umeentzako tailerrak antolatu urtean zehar.

Durangoko museoak, ikasturtean zehar, eskola umeentzako tailerrak antolatzen ditu ikastetxeekin eta berbaro elkartearekin elkarlanean. Hala, umeen sormena eta hizkuntza gaitasunak garatzen dira, beti ere euskaraz. Tailerrekin jarraituko da datozen urteetan ere.

EG.4.2.1.1. Euskarazko udaleku, neguleku eta abarrek antolatu edo sustatu.

Udan eta neguan ere, haurrek aisialdia euskaraz gozatzeko aukera izan dezaten, garrantzitsua da horretarako eskaintza zabaltzea.

ERABILERA - ELKARRERAGINA

EE.1.1.1.1. Aitona-amonen euskararen transmisiorako prozesuak martxan jarri.

Aitona-amonek darabilten euskara galdu ez euren hizkera batzea eta transmisiorako bideak aztertzea interesgarria litzateke.

EE.1.1.2.1. Zaintza-guneetan (zahar-etxe, haurtzaindegi...) euskara planak sustatu.

Zaintza guneek berebiziko garrantzia dute egunerokotasunean. Horregatik garrantzitsua da bertako erabiltzaileei euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatzea. Bide horretan euskara planik duten aztertzea, eta ez izatekotan bultzatzea planteatzen da.

EE.1.1.2.2. Zaintza-guneetako langileentzat (zahar-etxe, haurtzaindegi...) euskara ikastaro laburrak egin.

Aurreko puntuari lotuta, euskara plana sustatzeaz gain, langileek gutxieneko euskara maila izateak zerbitzuaren kalitatea igoko luke. Horregatik beraientzako ikastaro espezifikoak antolatzea egokia litzateke.

EE.1.1.4.1. Euskara Kontseilua: jarraipen saioak egin, AROaren bilakaera gainbegiratzeko.

Esan bezala, urte batzuetan gelditu egon ostean, aurten berriro jarri da martxan Euskara Kontseilua. 2024an zehar bost saio egin dira, Durangorako Euskara Planaren lanketa bideratzeko. Behin lanketa eginda, datozen urteetan honen garapenaren jarraipena egiteko saioak antolatu daitezke, edota bestelako gai puntualak lantzekoak.

EE.1.1.5.1. Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskararen egoeraren eta erabileraren diagnostikoa egin.

Durangon kirol mugimenduak, eta orokorrean aisialdiak, indar handia du, eta oso presente dago herritarren artean (batez ere gaztetxoaren artean). Hala, bertan esku hartzea egin aurretik egoera ezagutzea eta diagnostikoa egitea egokia litzateke, fokuak non jarri behar den identifikatzeko.

EE.1.1.5.2. Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera areagotzeko abian dauden praktika onak identifikatu eta zabaltzeko.

Aurrez esandakoari lotuta, diagnosi edo azterketa horretan identifikatzen diren praktika onak gainerako taldeekin zabaltzeko eta konpartitzean oinarritzeko litzateke.

EE.1.1.5.3. Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera areagotzeko hausnarketa saioak eta ikastaroak antolatu: klubetako zuzendarientzat, langileentzat eta entrenatzaileentzat.

Euskararen jakintzari dagokionez, klubetako eta kirol taldeetako langile eta boluntarioengan eragitea lortu nahi da, hauek gazte eta hurrekin duten hartu-erama kontuan izanda.

EE.1.1.5.4. Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera areagotzeko (mikro)planak diseinatu eta inplementatu.

Euskararen jakintzan ez ezik, euskararen erabilera ere indarra jarri behar da. Behin gutxieneko ezagutza bermatuta, honen erabilera areagotzeko eta normalizatzeko planak diseinatu eta inplementatzeko aukera aztertu nahi da.

EE.1.1.5.5. Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera areagotzeko hiztegitxo espezifikoak sortu eta zabaltzeko.

Kirol edo jarduerak bakoitzean hizkuntza espezifiko bat erabiltzen da. Hala, bakoitzari lotutako hiztegi espezifiko bat sortu/erabiltzeko eta zabaltzea txikitik eragiteko modu egokia litzateke.

EE.1.1.5.6. Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan barne (kideei) eta kanpo komunikazioa (sare sozialak) euskaraz izan dadin laguntza eman: ekonomikoa, materiala...

Kirol eta aisialdi talde eta mugimenduak guztiz euskalduntze aldera beraien komunikazioa ere euskaraz izateko pentsatutako ekintza da. Zentzu horretan behar duten

laguntza teknikoa (itzulpenak, aholkularitza...), ekonomikoa (dirulaguntzak) edo bestelakoa ematea da helburua.

EE.1.1.5.7. Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko laguntza ekonomiko eta materiala eman elkarte eta ikastetxeei.

Aurrekoari lotuta, ekintza honek helburu bera izango luke, baina kasu honetan elkarte eta ikastetxeei bideratuta.

EE.1.1.5.8. Euskara sailaren eta kirol elkarteen artean egindako Euskara eta kirola eskutik hitzarmenaren jarraipena eta berrikusketa: konpromisuen betetze maila aztertu.

Orain dela urte batzuk hitzarmen bat sinatu zen Durangoko Euskara Sailaren eta kirol elkarteen artean. Hitzarmen horretan kirol elkarteek zenbait konpromisu betetzera derrigortzen zuten beraien burua, euskarari lotuta. Hala, konpromisu horien betetze maila aztertu nahi da.

EE.1.1.6.1. Herriko elkarte, dendari eta ostalarien errotuluak, webguneak eta sare sozialak (izatekotan) euskaratzeko laguntza eman.

Paisaia linguistikoa elementu garrantzitsua da Durango euskalduntzeko, gure hizkuntza ohituretan eragiten baitu. Orain artean legez merkatariei eta dendariei errotuluak eta webguneak euskaratzeko dirulaguntza emateko proposamena da hau. Berrikuntza legez sare sozialak euskaratzeko ere dirulaguntza ematea planteatzen da, eremu digitalaren presentzia kontuan izanda.

EE.1.1.7.1. Durangoko edota eskualde mailako hedabideekin egiten diren dirulaguntza hitzarmenetan gutxieneko hizkuntza betebeharrak zehaztu.

Durangoko Udalak hedabideekin egiten dituen dirulaguntza hitzarmenetan euskararen gutxieneko presentzia bermatzeko hizkuntza betebeharrak ezarri behar dira.

EE.1.1.7.2. Udalerri mailako elkarteekin eta entitateen aldizkako argitalpenetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak eman.

Elkarte eta entitate hauek argitalpenak euskaraz egin ditzaten laguntza ematea da helburua.

EE.1.1.7.3. Udalaren publizitatea euskaraz txertatzea, euskarazko zein gaztelerazko hedabideetan.

Udalak hedabide hauetan jartzen duen publizitatea euskaraz izatea proposatzen da, honi lehentasuna eman eta eredu izan dadin.

EE.1.1.7.4. Herri zein eskualde mailako hedabideekin egindako hitzarmenak mantentzea (Anboto astekaria, esaterako) eta hitzarmen berriak egiteko aukerak aztertzea (Durango Irratia, DOT Durangaldea...): euskararen gutxieneko derrigortasun indizea ezarri, euskara lehenetsi....

Udalak hitzarmenak ditu herriko eta eskualdeko zenbait komunikabideekin. Beste komunikabide batzuekin ere egitea planteatzen da, beti ere, euskarazko gutxieneko batzuk betetzen badituzte.

EE.1.1.7.5. Euskara Sailaren web-orri berria sortu / goitik behera birplanteatu.

Euskara Sailak bere web-orri propioa du, Udalak duenetik bereizten dena. Hala ere, web-orri hau zaharkituta dago eta ez da oso praktikoa. Beharrezkoa da beste egituraketa bat planteatzea eta Udaleko web-orrian txertatzea, gainontzeko atalen gisan.

EE.1.1.8.1. Euskaraz kultura sortzen duten sortzaileen datu-basea eta haien edukien gida sortu eta herritarren eskura jarri.

Euskal sortzaileak egon badaude, baina askotan ez daukagu horien ezagutzarik. Beraz, interesgarria litzateke Durangoko eta eskualdeko euskal sortzaileen datu-basea sortzea eta herritarren artean zabaltzea.

EE.1.1.8.2. Familientzat euskal jolasak sortu edo bultzatu.

Familiek etxeko txikiekin euskaraz jolastu dezaten baliabideak behar dituzte.

EE.1.1.8.3. Sormen Beka DA!

Aurten, Durangoko Azokaren baitan, zazpigarren Sormen Beka DA jarri da martxan, euskal sortzaileak plazaratzen laguntzeko.

EE.1.1.9.1. Gida-baimenak euskaraz ateratzeko sustapena egin.

Eskola arautuko jardunaz gain, hortik kanpoko ikasketak ere euskaraz egin ahal izatea garrantzitsua da, hizkuntza azterketa gainditzeko oztopo izan ez dadin. Hala, kanpainaren bat martxan jarri daiteke, euskaraz izen ematera gonbidatuz.

EE.1.1.9.2. Errenta aitortzea euskaraz egiteko kanpainak bultzatu.

Aurrekoarekin lotuta, errenta aitortzearen kasuan ere euskaraz egin ahal izateko kanpainak bultzatzea interesgarria izan daiteke, herritarrek administrazioarekin duten harremana euskalduntze aldera.

EE.1.1.9.3. Euskaraz kontsumitzeko kanpainak, sariketak... antolatu.

Merkataritzaren eta ostalaritzaren kasuan, euskaraz kontsumitzera bultzatzeko pizgarri aproposak izan daitezke sariketak. Orain urte batzuk egin zen, eta berriro egitea planteatu daiteke.

EE.1.1.10.1. Idazle gazteen eskola antolatu: 12-16 urte bitarteko gazteek sormena lantzeko tailerra, Bizenta Mogel liburutegiarekin elkarlanean.

Bizenta Mogel liburutegian zenbait tailer antolatzen dira urtean zehar, literatura eta sormena lantzea helburu dutenak. Tailerrak aztertuta 12-16 urte bitartekoentzat eskaintza falta dagoela ohartu gara. Horregatik, adin tarte horretako gazteentzat idazle gazteen eskola antolatzea proposatzen da.

Tailer hau Julene Azpeitia lehiaketarekin lotzeko saiakeran, 18 urtetik beherako irabazleei bertan parte hartzeko gonbita luzatzea aurreikusten da.

EE.1.1.10.2. Euskarazko sormena bultzatzeko Julene Azpeitia lehiaketa antolatu: ipuinak, olerkiak eta bertsoak.

1983an egin zen lehenengoz Julene Azpeitia lehiaketa, herriko eta eskualdeko gazteen sormena sustatzeko horren garrantzitsua dena. Ibilbide luzea izan du, eta datorren urteetan ere egitea aurreikusten da.

EE.1.1.10.3. Bizenta Mogel Udal Liburutegiarekin batera bestelako ekimenak antolatu haur eta nerabeentzat: irakurketa klubak, ipuin kontaketa, bibliobisitak, book trailer lehiaketa, tailerrak...

Aisialdiari lotuta, gaztetxoek euskaraz ikasteko eta gozatzeko aukera eskaini behar da. Zentzu horretan, Bizenta Mogel Liburutegiarekin elkarlanean, orain arteko eskaintza aztertu eta proposamen berriak egingo dira. Euskara sailak diru-partida bat du ezarria Liburutegiarekin lankidetzan jarduteko.

BERRIKUNTZA

B.1.1. Lankidetzan abiatu euskarazko berrikuntza-ekosistemako eragileekin: Badalab, Soziolinguistika klusterra, unibertsitateko ikerketa taldeak...

Euskararen berrikuntzan eta ikerketan dabiltzan bestelako eragileekin lankidetzan posibleak egiteko aukera aurreikusten da.

IKERKETA - SISTEMATIZAZIOA

IS.1.1. Durangoko paisaia linguistikoaren azterketa egin.

Herriko paisaia linguistikoak eragin nabarmena du herritarren hizkuntza ohituretan. Bide horretan, kale azterketa egin eta euskarazko kartelen eta abarren portzentajea atera nahi da, etorkizunera begira ehuneko hori handitzeko.

IS.1.2. Durangoko errealitate soziolinguistikoaren kale neurketa egin.

Hizkuntzaren erabilera eta errealitatea zein den ezagutzeko kale neurketa egingo da.

IS.1.3. Ikerketak diruz lagundu.

Euskararen eta hari lotutako gaien ikerkuntza laguntzea da helburua, jakintza etorkizunerako giltza den heinean.

IS.1.4. Sortuta dauden ikerlanak eta materiala eguneratu eta ezagutzera eman: Toponimia, Durango Ezagutu, Ahotsak...

Euskararen dibulgazioari eta kontserbazioari lotutako edukiaren eguneratzea eta zabalkunde egokia egitea proposatzen da.

IS.1.5. Euskararen erabileraren neurketa egin Durangoko eta auzoetako jaietan egiten diren ekimenetan.

Herriko eta auzoetako jaiak euskararen erabileraren lagin egokia izan daitezke. Horregatik bertan egiten den euskara mailaren neurketa planteatzen da.

KOMUNIKAZIOA - HEDAPENA

KH.1.1. Ekintza bakoitzak dituen xede-hartzaileak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu.

AROA Plan guztian kontuan eduki beharreko puntua da hau. Aipatutako ekintza bakoitzaren hartzaile potentzialak identifikatu eta haiengana heltzeko komunikazio eta zabalkunde estrategia egokia pentsatu behar da.